



## TXOSTENA:

**GAIA:** *TOLOSAN 2026RAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA, BERDINTASUN PRINTZIPIOA TXERTATUTA EGITEKO PROPOSAMENEN BALORAZIOA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENA*

## AURREKARIAK

---

2016ko martxoaren 15ean 2016/486 Alkate Dekretu bidez izenburuan aipatzen den zerbitzuaren adjudikazio prozedura arautzeko baldintza administratibo partikularrak eta kontratazio gastua onartu zen. Egun berean 5 enpresei prozeduran parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaien.

Gonbidatutako enpresak hauek izan ziren: **Ondoan, Inguru, Enea, Elkarrekin 21 eta Artelatz**. Bestalde, **Elhuyar** enpresak prozeduran parte hartzea eskatu zuen eta bere eskaera onartu zen. Beraz 6 enpresa izan dira prozeduran parte hartzeko aukera izan dutenak. Enpresa hauei gonbidapena bidali izanaren froga agiriak prozedura honetako espedientean gorde dira.

Proposamenak jasotzeko epea apirilaren 5ean amaitu zen. **Inguru eta Artelatz** enpresek **ez dute proposamenik bidali**.

Apirilaren 6an beste 4 enpresen proposamenen A gutun-azala ireki zen. Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa 4 enpresek bete bazuten ere, **Elhuyarrek, kaudimen tekniko nahikoa** zuela ezin izan zuen frogatu.

Baldintza ekonomiko-administratiboen agirian 13. atalean kaudimen tekniko eta profesionala frogatzeko zein agiri aurkeztu behar diren zehazten da: "Azkeneko hiru urteetan udal plangintza estrategikoetan edo agenda 21 ekintza planen idazketan edo berrikuspenetan egindako lanak erakunde publikoentzat". Elhuyar enpresak ez du oraingoz burutu agenda 21eko lanik eta udal plan estrategiko bat burutzen ari da orain, Zumaian baina bukatu gabe. Beraz gure ustez, enpresa honek ez du kaudimen tekniko nahikorik prozedura honetan parte hartzeko eta horrela jakinarazi zitzaien.

Beraz proposamenen balorazio fasera 3 enpresa hauek pasa dira: **Elkarrekin 21, Enea eta Ondoan**.



## TXOSTENA

---

### Sarrera.-

Baldintza pleguetan argi zehaztu den bezala, Tolosako udal gobernuak, Tolosak ondorengo urteetan izango dituen erronka eta lan ildo estrategikoak adosten joateko **governantza eredu berri bat garatu nahi du metodologia parte hartzaile baten bidez, eta prozesu guztian generoaren ikuspuntua txertatuta.**

Lanketa hau Agenda 21 programak duen metodologia kontuan hartu beharko du baina prozesu osoaren helburu nagusia, baldintza pleguetan zehaztu bezala, hau da: Tolosak ondorengo **10 urteetarako lan ildo estrategiko nagusiak zehaztea**, modu parte hartzaile baten bidez eta berdintasun ikuspuntuarekin, eta **tresna eraginkor bat eraikitzea udalaren planifikazioa herritar eta eragileekin adostu eta jarraipena eman ahal izateko.**

Proposamen desberdinen balorazio irizpide nagusi bezala, ezeren aurretik, abiapuntuko premisa bezala eta pleguetan hala jasota dagoelako, honakoa kontuan hartuko da: onartutako proposamen guztiek Agenda 21 Ekintza Planen Berrikuspenen metodologia eta baldintza-orria bera bete behar dituztenez, **0 puntuazioa emango zaie baliorik erantsi gabe Agenda 21 Ekintza Planen Berrikuspenarako Gida Metodologikora mugatzen diren proposamenei.**

Hori dela eta, **modu berezian baloratuko dira**, Agenda 21 Ekintza Plana eta alor honetan ohizkoak diren hobekuntzaz gaindi, **prozesua amaitu eta Tolosako Udalaren jardunari begira gobernantza modu berri bat, hau da, politika publikoetan zeharkakotasuna, parte hartzea, gardentasuna, genero ikuspegia eta jarraipena eta ebaluazio eraginkorra ahalbidetuko dituzten ekarpenak.**

Azkenik, txosten honen sinatzaileak, eta udal gobernu bera, jakitun gera prozesu honen erronkak aintzindariak direla eta anbizio handikoak. Horregatik, argi dago interesa adierazi eta proposamena aurkeztu duten enpresaentzat esfortzu berezia eta berritzailea egitea suposatu duela. Horregatik eskertu nahi diegu enpresei beren proposamenak helarazi izana eta, modu berezian, ekarpen berritzaileak egin dituzten horiei.

### Balorazioa.-

Apirilaren 6an Elkarrekin 21 eta Enea enpresen proposamenaren B gutun azala ireki eta proposamen teknikoa aztertu zen. Honekin aurre-balorazio bat egin zen.

Ondoan enpresak oraindik bere kaudimen teknikoa behar bezala justifikatu ez zuenez beharrezko dokumentazioa aurkezteko eskaera luzatu zitzaion. Dokumentazio hau



apirilaren 7an jaso zen eta kaudimen teknikoa betetzen zuela egiaztatu eta gero B gutunazaleko dokumentazio teknikoaren azterketari ekin zitzaion.

Aldiz, Ondoan enpresaren proposamen teknikoa soilik Agenda 21 Ekintza Planaren berrikuspenera mugatzen zela ikusirik (berdintasun printzipioa sikiera aintzat hartu gabe eta sarreran aipatutako helburu nagusiei erantzunik eman gabe), agerian geratu da lehen unetik soilik Enea eta Elkarrekin 21 enpresen proposamenak izan zitezkeela kontratuaren helburuei erantzuten proposamen interesgarrienak.

Pleguen 11. puntuan, proposamen teknikoa baloratzeko irizpideak zehazten ziren. Atal honen balorazio maximoa 38 puntu dira

Pleguetan zehazten diren atal bakoitzaren balorazio hau egin da.

### **1. Proposamen teknikoaren balorazioa**

Balorazioaren azalpen labur batzuk:

#### **A) Ekarpinak oinarri metodologikora (10 puntu)**

Elkarrekin 21: Planteatzen dituzten hobekuntzak oso mugatuak izateaz gain, oso lotuak daude Agenda 21 Ekintza Planaren ezarpenetatik ondorioztatutako hobekuntzetara.

Enea: Gobernantza ereduaren txertaketa, parte hartzearen sistematizazioa eta guztiaren barnean, zeharkakotasunez, berdintasun printzipioa nola txertatu modu argi eta koherentean nola egin proposatu duten bakarrak dira.

Ondoan: Ez du ekarpenik egiten. Ekarpinak AG21 Ekintza Planen ohizko metodologiarekin lotuta daude.

#### **B) Eginkizunen azalpen zehatza dedikazioa eta egutegia adieraziz eta lan kronograma (5 puntu)**

Lehen bi enpresek modu egokian erantzuten diote alor honi. Eta helburu minimoak beteta geratzen dira. Enearen kasuan eskema grafikoaren bidez modu egokian adierazten da prozesuan inplikaturako organo edota talde desberdinen parte hartze maila eta unea. Hau da, Elkarrekin 21 ez bezala, Eneak oso ondo zatikatzen eta estrukturatzen du lan kronograma eta inplikaturako organo desberdinen elkar-loturak eta faseak.

Ondoanen kasuan, Agenda 21 Ekintza Planaren kronograma txertatzera mugatzen da. Ez dago ekarpenik.



**D) Prozesuan herritarren, udal langileen eta politikarien parte hartzea sustatzeko proposamenak eta plangintza (6 puntu)**

Elkarrekin 21 lan taldearen proposamenak hainbat organoren sorrera planteatzen du prozesuari begirako udal antolaketari begira, baina gabezi handiak erakusten ditu gobernantza eredu baten txertaketa erreal bat ahalbidetze aldera eta, behin prozesua amaituta, parte hartzea bultzatzeko eta sistematizatzeko aukerari dagokionez. Prozesuari begirako ekarpenak dira, argi adierazi gabe behin prozesua amaituta nola artikulatu eta sistematizatzen den parte hartzea. Bestek beste, idatzizko proposamenean egiten den Herri Bileren planteamenduak zalantza handiak sortzen ditu eta lortu asmo den azken helburuarekiko kontrajarria izan daiteke.

Oso laua da planteamendua. Agenda 21 Ekintza Planara oso lotua eta Gobernantza Eredu baten ezarpena ahalbidetzeko eskas geratzen dena.

Enea: Prozesu honek ahalbidetu nahi dituen helburu nagusien artikulazioa eta sistematizazioa modu argienean eta proposamen interesgarrienen bitartez adieraztea lortu duen bakarra da.

Ondoan: Ez du ekarpen berririk egiten. Ekarpenak AG21 Ekintza Planen ohizko metodologiarekin lotuta daude.

**E) Prozesua komunikatzeko proposamenak (6 puntu)**

Elkarrekin 21 eta Eneak oinarrian hobekuntza berak eskaintzen dituzte. Aldiz, balio erantsi berezia ematen diogu Eneak, Elkarrekin 21 ez bezala, egiten duen hobekuntza berezituari.

Eneak prozesua bera eta bertan burututako hausnarketan sintesia, modu dibulgatiago batean jasotzeko proposamenak eta planteamenduak arreta deitu digu.

Ondoan: Ez du ekarpen berririk egiten. Ekarpenak AG21 Ekintza Planen ohizko metodologiarekin lotuta daude.

**F) Gardentasunean hobekuntzak suposatuko duten proposamenak (5 puntu)**

Elkarrekin 21: Ez dio gaiari aurre egiten eta komunikazio gaiak nahasten ditu Gardentasun Legearen eta honen munduaren erronkei izkin eginez.

Enearen proposamenak Gardentasunaren ispirituari modu argian erantzuten dio. Interesgarria, bezain berritzailea gardentasuna eta genero politiken zeharkakotasuna behar bezala betetzen den gainbegiratzeko organo kolegiatu bat eratzeke proposamena.

Ondoan: Ez du ekarpen berririk egiten. Ekarpenak AG21 Ekintza Planen ohizko metodologiarekin lotuta daude.



**G) Genero zeharkakotasuna txertatzeko proposamenak (5 puntu)**

Berdintasun teknikariaren txostenean jasotzen da.

	<b>A</b> Metodologiari ekarpenak  10 puntu	<b>B</b> Kronograma eta dedikazioa  5 puntu	<b>D</b> Parte hartzea  6 puntu	<b>E</b> Komunikazioa  6 puntu	<b>F</b> Gardentasuna  5 puntu	<b>G</b> Genero ikuspegia  5 puntu
<b>Elkarrekin 21</b>	1	3	2	3	0	1
<b>Ondoan</b>	0	0	0	0	0	0
<b>Enea</b>	9	5	6	5	5	5

**2. Irizpide objektiboen balorazioa**

Eskaintza ekonomikoa: 37 punturaino.

Prezioen puntuazioan, puntu kopuru handiena (37puntu kasu honetan) proposamen baxuenari (K) emango zaio, eta gainerakoei (R) hurrengo formula aplikatuko zaie:

Puntuazioa,  $R = 37 - 1,5 \times (\text{Baja K} - \text{Baja R})$ ; bajak ehunekotan adieraziko dira; emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango da.

Lizitazioa prezioa 49.173,55€

Neurriz kanpoko prezioa (3 lizitatzaile) %25eko baja. 36.880, beraz ez dago neurritz kanpoko preziorik.

1. Elkarrekin 21	43.124€	Baja % 12,3 %
2. Ondoan	45.731,4€	Baja % 7%
3. Enea	49.062€	Baja % 0,22%

	Lan taldearen esperientzia (20 puntu)			Euskera ziurtagiria (5 puntu)	Proposamen ekonomikoa (37 puntu)
	Planak (10)	Generoa (5)	Energia (5)		
<b>Elkarrekin 21</b>	10	5	0	5	37
<b>Ondoan</b>	10	0	0	0	29,05
<b>Enea</b>	10	3,40	5	0	18,88



### 3. Balorazio emaitza gordina

Balorazio guztiak kontutan hartuta dokumentazioaren balorazioa hau da:

Enpresak	Emaitza
Elkarrekin 21	67
Enea	72,28
Ondoan	39,05

### 4. Bi enpresekin elkarrizketak eta ENEA enpresarekin negoziatutako hobekuntzak

Apirilaren 7an txosten honen sinatzaileak eta Berdintasun teknikaria bi enpresekin elkarrizketa saioak egin dituzte aurkeztutako proposamenen kontrastea egin eta zuzeneko elkarrizketaren bitartez proposamenean idatziz azaldu ez diren edota argitu eta osatu nahiko liratezkeen gaien inguruan hitz egiteko.

Behin bi elkarrizketak burutu eta gero, hiru udal teknikarien ondorio nagusiak bere horretan mantendu dira. Hau da, nahiz eta eskaintza ekonomikoa hobetua izan Elkarrekin 21en kasuan, eta horrek jada puntuazio aldetik diferentzi objektiboa erakutsi, Eneak landutako proposamenak oso modu agerian gaitzen du Elkarrekin 21en proposamena zentzu guztitan. Tolosako Udalak esku artean duen erronka eta baldintza pleguak ezarritako helburuak modu osoan egiten duena izan da, beharrezko bermea erakutsiz udal interesei begira.

Emaitza hori izanik, Enea enpresarekin, bere proposamena abiapuntutzat hartuz, hainbat hobekuntza negoziatu dira:

- Malgutasuna bilera kopuruen arabera, beti ere prozesuan sotu beharreko mahai sektorial kopuruari lotuta.
- Prozesuaren adierazgarri izango den irudi edo ikur baten sortze prozesua kudeatzea eta honen diseinua bere kontura izatea.
- Tolosa 2015 planaren itxiera kudeatzea eta zabaltzen den prozesu berri honen baitan behar bezala txertatzea.



TOLOSAKO  
UDALA  
ONDORIOA

---


Kontuan hartuz Berdintasun teknikariaren txosten teknikoa eta txosten honetan jasotakoak, hiru teknikariok *TOLOSAN 2026RAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA, BERDINTASUN PRINTZIPIOA TXERTATUTA* zerbitzuaren kontratazioa ENEA enpresari egitea proposatzen dugu.

Tolosan, 2016ko apirilaren 8an



Iñigo Muñoz Lopez

Ingurumen eta agenda 21eko teknikaria



Garikoitz Lekuona Izeta

Parte hartze arduraduna



TOLOSAKO  
UDALA